

Kutxabankek hobekuntza garrantzitsuak sartu ditu bere aseguru-sorta osoan

- **Hiru urteko deskontua eskaintzen du etxebizitza-aseguruan edo urte erdi doan bizi-aseguruan aurreikuspeneko produktuekin konbinatuta**
- **Erantzukizun zibileko aseguru berria merkaturatu du txakur-jabeentzat, hirugarrenen aurkako kalteak estaltzeko. Autoen Premium Packaren estaldurak ere hobetu ditu**

2024ko otsailaren 12an. Berak merkaturatzen duen aseguru-sorta zabala nabarmen hobetuz ekin dio Kutxabankek 2024ari. Nabarmentzekoa da, adibidez, poliza bat kontratatzean % 5eko deskontu gehigarria eskaintzen diela **aurreikuspen-produktu, inbertsio-funts edo zorro delegatuetara** behin eta berriz ekarpenak egin dituzten bezeroei.

Bizi-aseguru bat kontratatzen bada, **Baskepensiones edo Pentsio Planetara ekarpenak egin dituzten bezeroek sei hilabete doan izango dituzte** polizaren lehen urtean.

Horrez gain, **Etxebizitza eta Estra Etxebizitza** aseguruetan Kutxabankek **beherapen behakorra** eskaintzen du priman hiru urtez: % 25ekoa lehenengoan, % 20koa bigarrenean eta % 15ekoa hirugarrenean.

Osasun-aseguruen sortaren barruan, IMQren kanpaina berri bat jarri da abian. Kanpaina horrek % 25eko deskontuak aplikatzen ditu urre-modalitatearen kontratazioan, eta % 10ekoak modalitate urdinean, maiatzaren 1a baino lehen kontrataturiko polizetan.

Erantzukizun zibileko estaldura berria txakurrak dituztenentzat

Kutxabank, etxebizitza-polizaren barruan, txakur-jabeei berriaz zuzendutako estaldura osagarri bat merkaturatzen hasi da. Animalien ongizateari buruzko lege berriaren arabera, hirugarrenei eragindako kalteengatik erantzukizun zibileko aseguru bat kontratatu eta mantendu beharko dute txakur-jabeek indarrean.

Kutxabanken **“Txakur-jabeentzat erantzukizun zibileko pack”**ak honako hauek estaltzen ditu: animaliak hirugarrenei eragindako kalteen ordainak, erantzukizun zibilaren ondoriozko erreklamazioen ondoriozko prozesu zibil edo kriminaletako defentsa juridikoa, eta ezbeharrari lotutako kostu eta gastu judizialak.

Kutxabankek estaldura berriak sartu ditu, modernoagoak eta bereizgarriagoak, bere **auto aseguruan** ere.

Horrela, **Autoen Natura Premium Pack**ak istripuen bermea estaltzea 100.000 euroraino handitu du, baita, istripua gertatuz gero, maskotentzako albaitaritza-laguntzaren estaldura ere, edo matxura, lapurreta, sute edo erabateko galera kasuan ordezeko ibilgailu bat lortzeko aukera. Eskaintza horrek **baso-berritzeko konpromisoa** sartzen du, eta, horrela, 6.600 zuhaitz landatuko dira 3 urtean, aseguratutako ibilgailuen CO2 kontsumoa konpentsatzeko, neurri batean.

Kutxabanki buruz

Kutxabank erakunde liderra da Euskadin eta Kordoban. 700 bulego inguru ditu, bere jatorrizko lurraldeetan kapilaritate handiena duen sukurtsal-sarea, eta presentzia nabarmena du Andaluzian, Madrilen eta Katalunian. 5.000 profesional baino gehiagoko taldearekin, Kutxabank da, Europako ikuskatzaileen arabera, gure finantza-sistemako bankurik kaudimendunena eta Europan arrisku-profil onena duen hirugarren erakundea.